

**A. MARTIN URIARTE ODRIOZOLA
(1879-1960)**


Orduko gizarte-giro erlijiosoan herri-misiolari eta apostolu izan ziran hainbatek begirune eta oihartzun handia izan ohi eben herritarren artean. Herri txikietan batez be hori ageri-agerikoa zan. Orain gizarte-giroa guztiz irauli da eta hareetariko asko ahaztuak dira.

Une honetan A. Martin Uriarte zeanuritarra ekarri nahi geunke irakurleen aurrera. Egin-eginean be, *Karmengo Argia*-ren –*Karmel* honen aurretikoaren– lehenengo zuzendaria izan zan. Horrez gainera, beste hainbat aldetatik be, aintzat hartzekoa begitantzen jaku, esaterako, Egi biribilen eta baserri-gaien idazle legez eta batez be euskal sermolari legez.

Aurtengo urrian 50 urte igaro dira ha hil zala eta 81 zituan hil zanean. Urte asko dira. Gure herri txikietako zahartxuak izango dabe, ziur asko, haren gomuta, lauso artean bada be. Adinean nahiko aurrera goazen karmeldarrok umeak edo oso gazteak ginala ezagutu genduan eta ordurako bera laurogeira hurreratuz joian.

Hainbat argibide biografiko

Zeanurin jaio zan 1879ko ekainaren 27an eta egun berean bateatu eben Martin izena ezarriz. Undurraga auzoko eskolan



A. Martin.

egin zituan lehenengo ikasketak. 13 urte zituala, 1893ko apirilean, Larreako ikastetxean sartu zan eta handik laster, urte bereko irailean, Alesbesera (Nafarroako Villafranca) joan zan, ikastetxe honetako lehenengoetariko ikaslea izanik.

Latin eta giza zientzietako ikasketak amaiturik, Larreara bihurtu zan, oraingoan nobizio-etxera eta Karmeldarren Ordenako abitua hartu eban 1894ko irailaren 6an, 15 urte zituala. Hurrengo urteko irailaren 8an, Andra Mariaren Jaiotza egunean, egin eban profesa.

Markinako ikastetxean egin zituan Filosofiako lehenengo urte biak; Filosofiako hirugarrena eta Teologia Dogmatikako lau urteak, barriz, Burgosen. Aldi haretan Teologia Morala eliz ikasketetako azkeneko urtea izan ohi zan eta Iruñean egin eban. A. Martinek,

berak izan zituan irakasleak gogora ekarriz, hareetaz begirunez eta ondo berba egiten eban beti. Izan be, itzal handikoak eta oso ezagunak ziran Nafarroako San Joakim Probintzian eta handik kanpora be: A. Joan Bizente Jesus Mariarena (Zengotita-Bengoa Lasuen), A. Ezekiel Jesusen Bihotzarena (Bilbao Imaz), A. Joakim San Simon Stockena (Olabarrieta Etxebarria), Martzelo Jesus Umearena (Ibáñez Díez). Haren biografiaren argibideak idatzi dituenen arabera, bera be ikasle on eta aurreratua izan zan.

1898ko irailaren 11n egin eban Profesa Nagusia, Jaunari behin betiko bere burua sagaraturik. 1903ko irailaren 6an har-



A. Martinen ama.

tu eban Abadetzako Ordena sakratua Burgosen, bertako Artzapezpiku zan Agirre Kardinalaren eskutik.

1904an ikasketak amaiturik, Alesbesko (Villafranca) ikastetxeko irakasle izendatu eben. 1906ko irailean Iruñeko ikastetxera bidalia izan zan, Teologia Moraleko irakasle. Hurrengo urtean Larrean ireki zan ikastetxe barriko zuzendari eta irakasle izendatu eben. Ikastetxe honetan Latin eta Giza Zientziak irakasten jakezan, bai Ordenarako bokazioa sumatzen eben gaztetxuei, bai Elizbarrutiko abadetzarako nahiz beste Ordenaren baterako prestatzen ziharduenei. Larreako Ikastetxeak ospe handia lortu eban A. Martinen zuzendaritzapean eta han euren ikasketetako lehenengo urteak egin zituen gazteak mirespenez eta esker onez gogoratu ohi zituen gerora bai Larreako Ikastetxea eta bai A. Martin bertako zuzendaria. Larreako Ikastetxean izan zan A. Martin 1921era arte, gazteen hezkuntzari buru eta bihotz emona.

1921. urtean, 14 urte Larrean igaro ondoren, Markinako komentura bidalia izan zan. Hemen, aurrerantzean beraren jarduera gogokoena izango zanari, sermoigintzari, ekin eutsan kementsu.

Ordena barruan gobernuko karguak be izan zituan: 1924an Markinako Priore izendatu eben. Probintziako hurrengo Kapituluari, 1927koan, Larreara bidali eben kargu bera betetzeko. 1933ko Kapituluari Begoñako Priore izateko aukeratu eben. Hurrengo Kapituluari, 1936koan, Markinako Priore izendatu eben bigarrenez. 1942tik 1945era bitartean Altzoko Karmeldar Egoitzako Buru izan zan; eta 1945ean barriro Larreako Nobizio-etxeko Priore izendatu eben. Hiru urteko agintealdia amaitu ondoren, komentu haretan jarraitu eban 1960. urtean hil zan arte.

Gerra zibileko gorabehereri, haren jarduera nagusiei eta itzi deuskuzan idazkiei gerotxuago ekingo deutsegu. Baina orain esan dagigun zer edo zer haren gaixotasunaz eta bizitzako azken egunez.



A. Martin eta A. Remigio Goiuaga Ipina-Zeanurin sendi eta auzoakaz.

Azken urteetan sufrikario latza izan eban gaixotasun larri baten ondorioz. Urte bi inguru gaixotasun horren mende egon zala badakigu eta mina kentzeko morfina injektatzen eutsiela. Nekrologiako idazkian ez da esaten zer gaixotasun zan. Hazurretako biziena izan eitekeala uste dogu edota aldi haretan oraindino ondo zehaztu eta sailkatu barik egoan beste bizien motaren bat. Han hauxe dakar hitzez hitz: “Dios le probó en los últimos años con una enfermedad muy penosa que apenas le dejaba descansar y cuyas molestias él soportaba con ejemplar conformidad”. 1960ko urriaren 21ean hil zan arratsaldeko seiak aldean. Hileta-elizkizuna hurrengo egunean izan zan eta jende asko izan zan Larreako elizan hari azken agurra egitera

joanda. Izan be, oso ezaguna eta maitatua zan Bizkaiko herrietan eta Zornotza aldean batez be.

Gerratea eta gerra ostea

Goian adierazi dogunez, 1924an hasita, Markinan, Larrean eta Begoñan Priore izan ondoren, Markinako Priore izendatu eben bigarrenez 1936ko kapituluan. Gerra zibila hasi zanean, A. Martin buru zala, 29 erlijioso ziran Markinako karmeldarretan: 9 erlijioso mezako, hiru anaia ez-mezako, 15 ikasle profesadun eta beste bi fraidegai.

“Eusko Gobernuaren buru Jose Antonio Agirre jeltzalea eta beraren alderdia zeudelarik, geldierazi egin ziren Euskal Herrian hondamena eta heriotza ekarriz Espainiako gainerako tokietan nabari ziren erlijiosoen aurkako erasoaldiak.

Lehen hiru hilabeteetan, Markinako karmeldarrek bizimodu arrunta egin zuten baina komentua galtzeko beldurra aldendu gabe; hori zela eta, hilabete horiek zenbait gauza ezkutatzeko erabili zituzten; zeregin horretan saiatu zen merezimendu handiz Anaia Jose Frantzisko [Jose Frantzisko Iturraran ‘Axola’]¹.

Tropa nazionalak sartzean, komentura itzuli ziran han-hor-hemen sakabanaturik ebizan karmeldarrak eta lehenengo A. Martin Priorea. Baina handik laster kale-kalean atxilotu eben. A. Rafael (Jose Sotero Urionaguena ‘Alegrixen’) Larreako Priorea zan aldi haretan eta honen kronika guztiz interesgarrian A. Martin be agertzen da. A. Rafael eta A. Jose Domingo Etxanoko kanposantuaren ondoan hiltzeko agindua emonda egoan, baina une haretan zoriak nahi izan eban Bernardo Astigarraga jauna Begoñako parrokoa eta Frantzisko Hormaetxea Etxanoko Alkatea bertan izatea eta honeei esker bizirik geratu ostean, biak eta A. Avelino hirugarrena Durangora eroan zituen atxilo-

¹ Julen Urkiza, *Karmeldarrak Markinan*. Bilbao 1992 (287. or.)

turik eta handik Gasteizera. Gero A. Raffaelek hau dakar bere kronikan²:

“Hiru karmeldarrek Gasteizko komentura eraman gintuzten eta Priorearen, A. Amalioren, zaintzapean geratu ginen atxilotu gisa. Benetako aitak bezala hartu gintuen, gauza guztietan arreta handiz lagundurik Gasteizen egon ginen denboran. Han zeuden gure zain egun batzuk lehenago atxilotu zituzten Don Felix Bustindui Berriatuko erretorea, Don Marcos Espilla, Don Domingo Ugartetxea Bolibarko erretorea apaizak eta A. Martin



A. Martin eta beraren loba A. Ignazio Goikuria karmeldarra, arreba-koinatu eta lobakaz.

karmeldarra. Don Domingo zeharo hunkiturik geratu zen bere anaia A. Jose Domingoren itxura txarra eta tristea ikusirik.

Komentuan kokatu ondoren, kalera irtetea debekatua genuen, baina gainerakoan, besteek bezala gauza guztietan komunitateko bizitza jarraitu genuen”.

² Haren dokumentu originaletik eginiko itzulpena. (*Karmel*, 2005-4)

Eta beste pasarte baten hau dakar: “Gu Gasteizko komentura iritsi eta handik egun batzuetara, Aita Probintzialak esan zigun, une hartan genituen nagusi-karguei uko egitea komeni zela. A. Martinek halako erabakia hartzeko goizegi zela esan omen zuen. Behin, bi karmeldar agurgarri A. Martinek emandako erantzun honetaz ari ziren hitz egiten nire aurrean; hain zuzen ere, erantzun haren aurka. Kritika haiek entzutean, ni neure aurreko pentsaeran sendoago jarri nintzen eta, neure lagunekiko elkartasun txikiegia agertuz, uko egin nion Larreako priore karguari atzerazinezko eran. Nire erabaki horrekin bat egin zuten A. Nartzisok Gasteizko prioreorde eta Probintzialaren kontseilari karguei, A. Jose Domingok nobizioen maisu



A. Martin arreba-koinata eta lobakaz Ipina-Zeanurin.

karguari eta A. Martinek Markinako priore karguari, uko eginenez. Hurrengo Kontseilu Probintzialean kargu-uzte guztiak onartu zituzten, A. Nartzisorena izan ezik; honi onartu zitzaion Gasteizko prioreorde kargua uztea, baina ez Probintzialaren kontseilari kargua uztea”³.

Gerra-auzitegian epaituak eta kartzelatuak izan ziran karmeldarrak aitatu ondoren, paragrafo baten hau irakurtzen dogu:

“Estuvieron también encarcelados, aunque se les sobreseyó la causa, los Padres Ramón de San José (Olasagarre), Avelino de Santa Teresa (Linaza) y Martín del Purísimo Corazón de María (Uriarte)”⁴.

A. Martín Uriarte, 1938ko urriaren 18an, libre geratu zan epaiketa barik, baina erbesteuraturik bizitzea agintzen jakon. Bilboko Instrukzio Epaileak Gasteizko Gotzainari eta honek Karmeldarren San Joakim-eko Probintzialari idatziriko agirian A. Martín Uriarte Euskal Herritik urruntzeko agindua zetorren. Probintzialaren esku geratzen zan joango zan lekua seinaltatzea, baina Euskal Herritik 500 kilometrotik beherako distantzia ez eban izan behar. Hona hemen hitzez hitz:

(...) se ha sobreseydo provisionalmente la causa seguida contra el R.P. Carmelita Martín Uriarte Odriozola, habiendo quedado éste en libertad por lo que a la citada causa se refiere.

Mas, al propio tiempo, he de manifestar a V.R. que el citado Religioso deberá alejarse a una distancia no inferior a quinientos kilometros de estas provincias vascongadas, de conformidad con lo propuesto por el Consejo de Guerra al Excmo. Sr. General Jefe de la sexta Región”.

Goiko agindu hori betez, A. Probintzialak Cádizko San Fernando ezarri eutsan erbestealdia betetzeko lekutzat. Han egin

³ A. Nartzisok kargu guztiei uko egitea erabaki zuen.

⁴ *Historia General de la Guerra Civil en Euzkadi*, San Sebastián, 1982, 8. liburukia, 36. or.

beharreko denboraren amaieran, 1940ko ekainaren 23ko dataz, bere eskuz idatziriko eskutitza egin eutsan A. Jose Leon (López de Maturana) Probintzialari eta, bide batez, seinalatzen deutsan edozein komentutara bihurtzeko prest eta gogoz egoala adierazten deutsa: “como fuera de Vizcaya no soy conocido, acaso podría residir tranquilo en alguno de esos conventos”.

Sermolaria

Zeanuritar hau, beste ezeren gainetik, sermolaria zala esan geinke. Hori zan harek berezko eta gogokoen eban jarduera: sermoigintza, Jainkoaren hitza aldarrikatzea.

Ikasketak amaitu eta abade egin barri zala, orduko ikastetxeetan irakasle prestu eta argien beharra izango eben eta, irakasle eta hezkuntza lanari emona agertzen jaku, baina 1921. urtean Markinarako izendapena jaso eban ezker, buru eta bihotz ekin eutsan Jainkoaren hitza aldarrikatzeari. Harrezkero, bere bokazioa izan eban hori. Egia esan, inor gorpuz eta arima predikatzeari emona egon bada, hori A. Martin izan da. Markinan eta Larrean igaroriko urteak apostolutza-lan handi-handikoak izan ziran. 50 urtean horri ekin eutsan, berak aurtuzten dauanez “toto corde atque totis viribus”.

Orain dala urte asko, 1987an, lehengo sermolariez idatzi neban *Karmel* aldizkari honetan. *Lehen go sermoigintza eta sermolaria oroituz* dau izenburua⁵. Hona hemen hango atal batzuk:

“Pertsonaia gorena, ohoretsua eta txit onartua zen predikaria. Itun Zaharreko profetak bezala, erlijioiko maisu. Bere ahotik zerion hitza, Jainko berberaren mezutzat hartua zen. Baina edonork ez zuen ohore hori, apaiz izan arren. Noizbehinka han-hor-hemen sermoiren batzuk egina izan arren, guztiak ez ziren horretarako gai. (...) Beraz, ekintza horretarako ezinbestekoak dira hitz-etorri onekoa, irudimentsu eta sentibera izatea.

⁵ Karmel 1987-1, 16-31

Horrez gainera, osagarri bezala, beste dohainik ere bada; hala nola, gorputzez ere ikuste ederrekoa izatea, ahots gozo harmoniatsua, aktore ona izatea eta abar”.

Sermolariak, bere jardueran emaitza onak izatekotan, behar dituan baldintza batzuk aitatzten dira atal horretan eta, azkenez, sermolariaren definizio antzekoa moldatzen da ondorengo lerroetan:

“Predikari edo sermolariaren dohainak aipatzerakoan, *Vir bonus dicendi peritus* esan ohi zuten antzinakoek.

Hots, *gizon on eta biztun trebea*. Aita Martin Uriarte Karmeldar sermolari sutsuak era herrikoi eta xelebreagoa zuen hori adierazteko: *bularra sendo, samea garbi eta buruan zer esana ugari...*”

Berak baldintza horreek ondo betetzen zituala esan geinke. Hona aitaturiko idazlanetik hartuta haren sermoigintzako joerak edo estiloa:

“Bizkaiko elizetan inor ezagunik izatekotan, A. Martin. Batez ere hitzaldi asko egina zen. Gehien-gehien Arratzun. 400 sermoi inguru bai. Bere joeraz sermolari garratz, sutsu eta za-



ratatsua zen. Trumoi-hotsaren orroetan ekiten zion pulpitu-lanari. Gogoko zitzaion sermoigintza. Edozein herritara beste sermolariren bat lagun zuela misioak ematera edo joaterakoan, ia lan guztia bere gain hartu ohi zuen: *Neuk, neuk egingo dot*. Garrasiaren garrasiz eliza dar-dar jarri behar, bere buruari tratu txarra emateraino. Hitzaldi asko egin arren, ondo-ondo prestatzen zenetarikoa genuen A. Martin. Sermoia *orraztu, orraztu* egin behar zela esaten omen zuen. Bere-bereak zituen gai batzuetan ondo asaskatzen zen. Azken Epaikunde, Infernua etab. zituen gustuko gaiak. Behin Zaldibarren⁶ bota omen zituen botatzekoak. Infernuko egoera garratz eta beldurgarri adierazi omen zuen, baina era berean, irudimen jori batez ehotako zertzelada koloretsu eta bizi-biziz. Jendea dardarka! Baina, beste herri askotan bezala, han ere umoretsu eta zirtolaririk bazenez, batek esan omen zuen: ‘Mundu honetara barriro itzuli dan hildakorik ez dala? Bat ezagutu joagu, ba! Haren aurpegi baltz kiskaldua, haren zertzelada eta infernuko gorabeherak zehatz-mehatz esan beharra! Bertan izan ez danak etxaukok holan esaterik...!’

Probintziako Etxerako bere eskuz idatziriko argibide autobiografikoak ditugu, 1959koak. Idazki horretan esaten dauanez, harrigarria izan zan Jainkoaren hitza aldarrikatzen izan eban jarduera amaiezina. Predikatze-lanik handiena “euskeraz” egitea egokitu jakon. Batez be Bizkaian zehar, euskeraz egiten dan lekuetan, nekez izango da elizarik harek predikatu ez dauanik. Parrokia batzuetan ehun eta berrehun sermoitik gora izango dira berak eginikoak. Esaterako, gorago be esan dogu hau baina, Arratzuko parrokian, misioak, hirurrenak, laudoriozko sermoiak eta abar, laurehun inguru izango dira han eginikoak.

Predikatze-lan honetan, Jaunaren, Andra Mariaren eta Santuen laudoriozko sermoiez gainera, beste zeregin latzagoak be

⁶ Ez da ziurra Zaldibarren zan ala beste herraren baten...



Larreako ikastetxe zaharra eta leboien eskulturak sarreran.

sartzen dira, esaterako, misioak, gogo-jardunak, hirurrenak... Eta holan kopuruak gora eta gora egiten dau. Bere idazki horretan esaten dauanez, kontuak eginda, 55 urteren buruan 19.000 sermoi inguru izango dira A. Martinek predikatu zituanak.

Pulpitu batzuk ospe handikoak ziran, orduan, Euskal Herrian. Horreen artean Arrasatekoa eta Durangoko Andra Maria-koa aitatzen dira. Arrasaten, tradizioaren arabera S. Vicente Ferrer predikatzen izan zan pulpitu berean zortziurren bi egitea egokitu jakon A. Martini. Durangoko Andra Marian 60 bat ser-

moi egingo zituan. Hareen arten Bariku Santuko zazpi berben sermoia zazpi bider.

Herriari eginiko predikatze-lanaz gainera, urtero gogo-jardunak emon ohi eutsezan klausurako moja komunitade batzuei.

Jarduera honetan guztian pozgarriena berarentzat misioeta-ko sermoiak, hirurrenetako moraleko eta “betiko egien” berbaldiak izan ohi ziran, arimetan fruitu on-onak sumatzen zitualako. Horregaitik Jainkoari eskerrak emoten eutsazan eta horretan eginiko ahalegin eta lanak ondo ordainduak ziralakoan egoan.

Gauza jakingarri legez gehitu geinke, San Jose egun batez egin ebala azkeneko sermoia, eta une haretan berak gogora ekarri eban 55 urte igaro zerala lehenengoz predikatu ebanetik, eta San Joseri buruz izan zala Cadreitan.

Euskal idazlea

Guk, *Karmel* aldizkarian “Egi biribillak” berrargitaratuz eta haren gomuta gure irakurleen aurrera ekarriz, aintzakotzat hartu eta azpimarratu nahi geunke A. Martinen euskal idazle jarduera. Idatziz edo lumaz eginiko lana, harengan, elizetan fededunen aurrean Jainkoaren hitza aldarrikatzen eginiko apostolutzaren osagarri izan zala esango geunke. Izan be, bere izenaz nahiz izen barik *Karmengo Argian* biltzen dituan “Egi biribillak”, “Esakun sakonak”, “Oldozkunak”, “Aolku jakingarriak”, “Egi onuratsuak”... eta zer esanik ez, aldizkariaren zuzendari zala idatziriko idazlantxuak pentsaera erlijioso eta kristau-moralaren fruituak dira.

Lino Akesolok, *Karmengo Argiako* idazle aipagarrienen bari emotean, hau dino A. Martini buruz⁷:

“Aita Martin Uriartek egiten eban zuzendari. Beronek eroia-zan askorentzat begikoen ziran arlo bi: *Baserri gaiak*, eta *Egi bi-*

⁷ *Karmel*, 1994-4 (9-11 or.)

ribillak. Esaera zarren antzeko egi biribil esanguratsuak asmetan beti izan zan zalea, eta bizi guztian ekin eutsan arlo oni”.

Idazlan berean, lerro batzuk beherago hau dator:

“Aita Martin, aldizkariaren zuzendaria, bere solo-lanak eta Egi Biribillak itxi barik, sarri ebillan beste gai sakonagoetan sartuta, zuzendari zanari egokionez. (Martiartu, M. U., Uriarte eta Barazar izen edo izenpean)”.

Karmengo Argiaren zuzendari zala (1931-1932), “Egi biribillen” antz-antzeko esalditxuak agertzen dira idazlan luzeagoen artean kokaturik. Guztiak ez dira multzo berekoak eta goian ezartzen jaken izenburuak berak be hori esan nahi dau. Handik eta hemendik bilduak eta moldatuak dirudie eta, horregaitik edo, ez dator azpian egilearen izenik, baina erraz jo daiteke A. Martin Uriarteren eskua hareen biltzaile eta moldatzaitzat. “Esakun sakonak” izenburupean Euskal Herrian zabal dabiltzan eta nahiko ezagunak diran atsotitzak datoz. Gainerakoetan (“Oldozkunak”, “Aolku jakingarriak”, “Egi onuratsuak”, “Oldozketak”...) A. Martinen estiloa edo haren marka sumatzen dala esan geinke. Ondorengo lerroetan, labur-labur, *Egi biribilletako* eta beste sail hareetariko ale aukeratuak agertuko ditugu:

“Egi biribillak”

- *Ibaiko urak inoiz ez dabe atzerantz egiten; gizasemeen urteak olantxe dira.*

- Min gaizto bat ezpatea baiño bildurgarriago da; ezpatak zauritu, eta min txarraren edenak edo berenoak erail egiten gaitu.

- Zauritua osatu daiteke; pozoitua ez ain errez.

- Norbaiten itxurari bakarrik ez begiratu: dunbalak (bonbo) zarata andia ataraten daki, baiña barruan aizez beterik dago.

- *Sabelak egitean gur-gur, barko afaria agur.*
- *Ez da eperik, goiz edo berandu betetan ez danik.*
- *Aita onaren etxean danak barrez, gaiztoarenean negarrez.*
- *Neu ondo eta besteak or konpon, olangoa ez kristiñau, ez gizon.*
- *Entzuten jakitea, ikasten jakitea.*

“Esakun sakonak”

- *Azeri zarrak allia luze, bere legezkoak besteak uste.*
- *Otsoak otsoari gatzik ez, eta lapurrari lapurrak laztan.*
- *Mari gurea goruetan, bear ez dan orduetan.*
- *Sua dagoan tokitik, kea.*
- *Katuak daroan sardiñari, oratu egiok.*
- *Guzurra esan mendian, neu baiño lenago errian.*
- *Guztia gura izatea, guztia galdutea.*

“Oldozkunak”

- *Limosnea, lurrean kimua emon eta zeruan loretuten dan landarea da.*
- *Mundu onetan ez da atsegiñik, naigabe zerbait ez dakarrenik.*
- *Besteen utsegiñak beti begien aurrean, eta bakotxak bereak sarri atzeko aldean.*

“Egi onuratsuak”

- *Asarre bazara, erabagi astunik ez artu.*
- *Aitak semeari ezer agindu orduko, erakutsi ona emon begio, berak lenago egiñaz.*
- *Gurasoak seme-alaben aurrean ezbai eta asarrerik ez euki.*
- *Irabazi baiño len ez zorrik egin.*

- *Ezetarako ez dozun gauzarik, merkea dalakoan, bein be ez erosi.*

- *Gaur egin zeinkena, biarko ez itxi.*

Izaera eta joerak

Bere egiteko goragarriari, Ebanjelioa eta kristau-morala al-darrikatzeari, lotu-loturik agertzen jaku. Aurpegiera serioaz gogoratzen dogu. Herri txikietan, euskera hutsean bizi ziranetan, maite eben eta begirune handia sortzen eban. Nik uste dot, A. Martin Uriarte euren artzain on eta irakasle erlijiosotzat hartzen



Zornotzako Karmeldarren ikastetxe aurrean (1933ko apirila).

ebela Bizkaiko herrietan, batez be baserritarrak euren-eurena eben. Berak be, buru eta bihotz, hareen onerako erre zituan indarririk onenak. Predikatze-lanaz gainera, *Karmengo Argian* idazten zituanak hareei begira edo hareengan pentsatuz idatziak dira; “Baserri gaiak”, barriz, zuzen-zuzenean hareentzat idatziak.

Debozio handikoa eta Karmeldarren Ordena bihotz-bihotzez maite ebana zan. Horrek eraginda edo, idatzi zituan euskeraz Karmengo Amaren eta Santa Teresatxuren bederatziurreneko liburuxkak.

Loreak oso maite zituan; lorezaintzari emona gogoratzen dogu ezagutu genduanok. Baina ortuan edo lorategian baino gehiago loreontzietan zaintzen zituan, batez be begoniak, mota eta tamaina askotakoak. Nekrologiaren testuak hau dino hitzez hitz:

“Un detalle curioso. En medio de la aparente seriedad y austeridad de su carácter, era muy aficionado a la floricultura. Tenía el patio y la azotea del convento llenos de tiestos de flores, principalmente de begonias, de las cuales llegó a formar una colección muy notable por su abundancia y variedad. En los días de fiesta, se gozaba en adornar la iglesia y cada uno de los altares con las flores que él había cultivado”.

Zahartzaroan be, gu nobizioak ginala, gogoan izango eban, beharbada, bere esaera ospetsua, gorago aitatu doguna: *Bularra sendo, samea garbi eta buruan zer esana ugari*. Orduan ez geuntsan Larreako elizan sermoi askorik entzun; banaka batzuk bai. Baina jaiegunetako meza kantatuetan meza-emoile izatea gogoko eban. Zahartzaroan ez eban *samea garbi* izaten, eta Aintza bere indar guztiaz entonatu aurretik, eztarria pixka bat garbitzen ahalegintzen zan...

Luis Baraiazarra Txertudi